

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GATEIZKO UDALA

ENPLEGUAREN ETA GARAPEN EKONOMIKO IRAUNKORRAREN SAILA

Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko martxoaren 18an hartutako erabakiaren laburpena: Gasteizen ekonomia zirkularreko proiektuen garapena sustatzeko laguntza ekonomikoak emateko udal programaren 2021eko berariazko deialdia onestea

BDNS(Identif.): 556483

Diru-laguntza orokorrei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/556483>),

(<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>) eta Gasteizko Udalaren webgunean (<http://www.vitoria-gasteiz.org>).

Lehena. Onuradunak

Diruz lagun daitezkeen jarduerak Gasteizko udalerriko lantoki batean egiten dituzten enpresa pribatuak, beren izaera juridikoa edozein delarik ere, baldin eta helbide soziala eta fiskala Gasteizen badute, betebeharrak fiskalak, Gizarte Segurantzarekikoak eta Gasteizko Udalarekikoak beteta badituzte, eta eskabidea aurkezteko unean enpresa txiki eta ertainen betekizunak betetzen badituzte (250 langile baino gutxiago, urteko fakturazioa gehienez ere 50 milioi eurokoa eta balantze orokorra 43 milioi eurotik beherakoa).

Enpresa horiek ezingo dute aurreko betekizunak betetzen ez dituzten enpresekin loturirik izan, edo halakoen partaidetza nagusirik izan. Berariaz baztertuta geratzen dira sozietate publikoak eta zuzenbide publikoko entitateak, baita irabazi-asmorik gabeko entitateak eta elkarte- edo lanbide-jarduerak burutzen dituztenak ere elkarteak, lanbide-elkargoak eta abar.

Bigarrena. Xedea

Gasteizen negozio-eredua berriro diseinatzea xede duten proiektuak sustatzeko laguntza ekonomikoak emateko baldintzak arautzea, horretarako norgehiagoka baliatuz; ekonomia zirkularren parametroak oinarri hartuta, proiektu horiek lehiakorrak eta iraunkorrak izan behar dute eta alor hauetara zuzenduta egon: ekodiseinua, serbituzazioa, konponketa aurreratu, berregokitzapena, birmanufaktura, birziklatze aurreratu eta bigarren mailako materialak berreskuratzea.

Zehazki, diruz lagundu ahalko dira 6. oinarrian, proba-proiektuetan (produktu berriei, zerbitzuei eta produktuak berrerabiltzeari buruzkoak), eta produktu eta zerbitzu berriak merkaturatzeko proiektuetan aurreikusitako gastuak, baldin eta haien ordainketa 2021eko azaroaren 15a baino lehen behar bezala justifikatuta badago.

Hirugarrena. Oinarriak

2020ko abenduaren 4an onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Gasteizko Udalaren 2021erako dirulaguntza-deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak (2020ko abenduaren 30eko ALHAO, 148. zk), eta 2021eko martxoaren 18an, berriz, Gasteizen ekonomia zirkularreko proiektuen garapena sustatzeko laguntza ekonomikoak emateko 2021eko deialdiaren berariazko oinarriak.

Udalaren webgunean www.vitoria-gasteiz.org eta herritarrei laguntzeko bulegoetan kontsulta daitezke biak.

Laugarrena. Zenbatekoa

Deialdi honek 50.000,00 euroko zuzkidura du, 2021erako onetsitako udal aurrekontuan erabilgarri dagoen 0823.4331.471.36 partidaren kontura, "Ekonomia zirkularreko proiektuetarako laguntzak" deiturikoa.

Enpresa/pertsona bakoitzeko dosier bakarra tramitatuko da, alorra kontuan hartu gabe, eta diruz lagun daitezkeen gastuen ehuneko 50ekoa izango da dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa, 10.000,00 euroko mugarekin.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

2021eko ekainaren 1etik 30era.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko martxoaren 23a

Enpleguaren eta Garapen Ekonomiko Iraunkorraren Saileko zerbitzu burua
LUCIO CRUCELEGUI Y JÁUREGUI